

ENPLEGUAREN ALDEKO III. AKORDIO SOZIALAREN NEURRI BERRIEI BURUZKO OHIKO GALDERAK

Automatikoki luzatzen al dira irailaren 30ean indarrean dauden ezinbesteko ABEEE guztiak?

Bai, automatikoki luzatzen dira 2021eko urtarrilaren 31ra arte.

Era berean, ezinbesteko ABEEEen kasuan, automatikoki luzatzen al dira irailaren 30ean indarrean zeuden Gizarte Segurantzako salbuespenak?

Salbuespenak sektore jakin batzuetako enpresentzat baino ez dira luzatzen, hain zuzen ere estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskuratze-tasa txikia dutenentzat.

Sektore horietako enpresek, beren ASBEEEak luzatu dituzte (arauan aurreikusitako salbuespenak barne) inolako izapiderik egin beharrik gabe. Aipatutako enpresak identifikatuta daude irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren eranskinean zerrendatzen diren 2009ko EJSN kode batzuen bidez.

Beren balio-kateko kide gisa edo haien zeharkako mendeko gisa kalifikatzen diren enpresek ere jaso ahal izango dituzte ESJNentzat aurreikusitako salbuespenak, betiere lan-agintaritzan horretarako eskaera aurkeztu ondoren.

Zeintzuk dira balio-katea osatzen duten enpresak edo estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskuratze-tasa txikia duten sektoreetako enpresen mendekoak?

Ezinbestean luzatutako ABEEE bat duten enpresak dira, eta haien 2019ko fakturazioaren ehuneko berrogeita hamar gutxienez honako eragiketaren batean sortua izan behar du: aipatutako EJSN-09ko kodeetako batean sartuta dauden eragiketekin zuzenean egindako eragiketak edota EJSN-09 kode horietan sartuta dauden enpresek benetan garatutako jardueraren zeharkako mendetasuna duten eragiketak.

Nola egiazta dezakete enpresek mendekoak edo balio-kateko kideak direla, betiere estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskuratze-tasa txikia duten sektoren baitan?

Lan-agintaritza eskudunari aurkeztu behar zaio aipatutako sektoreetako enpresa baten balio-katearen mendekoa edo kidea dela deklaratzeko eskaera; horrez gain, azalpen-txosten bat eta egokitzat jotzen den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

Gainera, enpresak horren berri eman behar diete langileei, eta baita informazioa helarazi ere langileen ordezkari, halakorik balego bederen.

Lan-agintaritzetako zeinek du eskuduntza egiaztatzeko enpresa bat balio-kateko kide dela edo ekonomikoki estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskuratze-tasa txikia duten sektoreetako enpresen mendekoa dela?

Ezinbesteko ABEEEaren aldeko ebazpena (bai ebazpen zehatzaren bidez, bai administrazio-isiltasun positiboaren bidez) eman zuen lan-agintaritza da eskuduna.

Noiz eska daiteke enpresa balio-katean sartuta egotearen egiaztapena edota ekonomiaren aldetik estaldura-tasa handia eta berreskuratze-tasa txikia dituen sektore bateko enpresa baten mendekoa izatearena?

Hori eskatzeko epea 2020ko urriaren 5etik 19ra bitartekoa da.

Zein da estaldura tasa handia eta berreskurapen tasa txikia duen sektore bateko enpresak, bere balio kateko enpresak eta ekonomikoki horien mendekoak diren enpresak salbuesteko eremua?

Salbuesteko eremua ezinbesteko ABEEE luzatua da, eta enpresa horietako langileengatik aplikatzen dira salbuespenak.

ABEEEak enpresa baten lantoki bati edo batzuei bakarrik eragiten bazien, lantoki hori edo horiek izango dira eremua.

Zer epe du lan-agintaritzak estaldura-tasa handia eta berreskuratze-tasa txikia duen sektore bateko enpresa baten balio-katean sartuta dagoen edo ekonomikoki haren mende dagoen enpresa-deklarazioari buruz ebazteko?

Agintaritzak 5 egun balioduneko epea enpresaren eskaera ebazteko, administrazio-isiltasun positiboa barne.

Zein da ezinbesteko ABEEEn salbuespenen zenbatekoa, bai estaldurata-tasa handia eta berreskuratze-tasa txikia duen sektore bateko enpresei dagokienez, bai haren balio-kateko enpresei eta ekonomikoki haien mende daudenei dagokienez?

Honako hauek dira ezinbesteko ABEEEn salbuespenen ehunekoak:

- 2020ko otsailaren 29an 50 langiletik behera zuten enpresetan %85ekoa, Gizarte Segurantzako kotizazioari eta baterako diru-bilketaren kontzeptuei dagokienez.
- 2020ko otsailaren 29an 50 langile edo gehiago zuten enpresentzat %75, Gizarte Segurantzako kotizazioari eta enpresen baterako diru-bilketaren kontzeptuei dagokienez.

Ehuneko horiek urriaren 1etik aurrera lanean hasiko diren langileei eta maiatzaren 12tik lanera itzuli direnei aplikatuko zaie, bai eta kontratua etenda edo lanaldia murriztuta duten langileei ere. Neurria 2021eko urtarrilaren 31ra arte egongo da indarrean, betiere etenaldiak eragindako lanaldiaren ehunekoetan.

Aurreikusten al da beste ABEEE batzuk eskatu ahal izatea Covid-19ak eragindako ezinbesteko salbuespenei lotuta?

Aalbuetsitako ABEEE berriak eskuratu ahal izango dituzte Covid-19aren eraginpean dauden enpresek, edozein sektoretakoak direla ere. Zehazki, honako hauek dira aurreikusitako kasuak:

1. Lantokiren batean jarduera garatzea ezinezkoa ikusten duten enpresek erskatu ahal izango dute, baldin eta 2020ko urriaren 1etik aurrera Espainiako edo atzerriko agintariak eta itxieraren eraginpeko lantokiak osasuna babesteko euste-neurriak hartu edo murrizketa berriak ezartzen badituzte eta horrek jarduera garatzea ezinezkoa egiten badu. Horretarako beharrezkoa izango da aurretiaz ezinbesteko ABEEE bat izapidetzea.
2. Lantokiren batean jarduera ekonomiko normalizatuan aritzeko mugak dituzten enpresek eskatu ahal izango dute, baldin eta Espainiako agintariak, muga horiek jasaten dituzten lantokiak eta kontratua etenda edo lanaldia murriztuta duten langileek hartutako erabakien edo neurrien

ondoriozkoa bada aipatutako muga. Horretarako beharrezkoa izango da aurretiaz ezinbesteko ABEEE bat izapidetzea.

Zein prozedura erabili behar da beren jarduera ekonomikoa oztopatuta edo mugatuta duten enpresek Gizarte Segurantzaren kuotetatik libratzeko aukera baliatzeko?

Enpresek enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente bat izapidetu beharko dute, Langileen Estatutuaren 47.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta murrizketek edo osasuna babesteko euste-neurri neurri berriek beren jarduera ekonomikoa eragozten badute, edo beren jarduera normalizatuaren garapenean mugatuta badaude agintari eskudunen erabaki edo neurrien (aurreko Itemean deskribatutakoak) eta eraginpeko lantokien ondorioz.

Zein ehuneko aplikatu behar dira osasuna babesteko murrizketa eta euste-neurriek eragindako eragozpen edo jarduera-mugen ondoriozko SBEEEtan?

1. Osasuna babesteko murrizketek eta euste-neurriek enpresaren jarduera eragozten duten kasuetan:

A) 2020ko otsailaren 29an 50 langile baino gutxiago zituzten enpresak.

Itxiera-aldiari dagokiona eta muga-eguntzat 2021eko urtarrilaren 31 duena: Gizarte Segurantzako kotizazioagatik enpresak egindako ekarpenaren % 100, baita baterako ekarpen-kuotei buruzkoa ere, langileei, eragindako lantokiei eta neurri berriek irauten duten aldiari dagokienez.

B) 2020ko otsailaren 29an 50 langile edo gehiago zituzten enpresak.

Itxiera-aldiari dagokiona eta muga-eguntzat 2021eko urtarrilaren 31 duena: Enpresaren ekarpenaren eta baterako bilketako kontzeptuengatik kuoten % 90, langileei, eragindako lantokiei eta neurri berriek irauten duten aldiari dagokienez.

2. Jardueraren normalizatuan aritzeko mugak dituzten enpresentzat:

A) 2020ko otsailaren 29an 50 langile baino gutxiago zituzten enpresak.

Enpresak egindako ekarpenaren eta 2021eko urtarrilean sortutako baterako bilketako kuoten salbuespena % 100ekoa, % 90ekoa, % 85ekoa eta % 80koa izango da, hurrenez hurren, jarduera mugatuta dagoen lantokietan lanaldia etenda edo murriztuta duten langileentzat, beti ere eteteak eragindako aldi eta lanaldi-ehunekoen arabera.

B) 2020ko otsailaren 29an 50 langile edo gehiago zituzten enpresak.

Enpresak egindako ekarpenaren eta 2021eko urtarrilean sortutako baterako bilketako kuoten salbuespena % 90ekoa, % 80koa, % 60koa eta % 50ekoa izango da, hurrenez hurren, beren lanaldiak etenda edo murriztuta dituzten langileentzat, jarduera mugatuta dagoen lantokietan eta eteteak eragindako lanaldi-aldi eta lanaldi-ehunekoen arabera.

Eralda edo bihur al daiteke indarrean dagoen ezinbesteko ABEEEa ekonomia-, teknika-, antolamendu- eta ekoizpen-arrazoiengatiko (ETAE) ABEEE bat?

Bai, ETAE ABEEEa izapidetu daiteke, baldin eta ezinbesteko ABEEEa indarrean badago. ETAE ABEEEa ezinbesteko ABEEEa bukatu ostean hasiko balitz, lehenaren ondorio-data bigarrenaren amaiera-datara atzeratuko da.

Alderdiek hitzartutako epea amaitutakoan, luzatu al daitezke ETAE ABEEEak?

Bai, ABEEEaren azken jakinarazpena jasotzen duen lan-agintaritzaren aurrean luzatu daitezke, baldin eta kontsulta-aldian akordio bat lortzen bada. Luzapena urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera izapidetu beharko da, betiere martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan jasotako berezitasunekin.

Gizarte Segurantzako kuotetatik salbuesteko eskubidea al dute ABEEE ETAEak?

Hauek dira salbuesteko eskubidea duten ABEEE ETAEak:

1.2020ko urriaren 1aren ondoren ezinbesteko ABEEE batetik eraldatu diren edota ezinbesteko ABEEEa bukatu ostean sortu diren ABEEE ETAEak, baldin

eta horren jatorrizko ABEEEa 2020ko urriaren 1etik aurrera kuotak ordaintzetik salbuetsita balego. Kasu horretan hasierako ABEEE horri dagokion zenbateko berean salbuetsiko litzateke.

2. 2020ko irailaren 30ean salbuesteko eskubidea duten ABEEE ETAEak, baldin eta estaldura-tasa handia eta berreskuratze-tasa txikia duen sektore bateko enpresatzat hartzeko ezinbesteko ABEEEetan ezarritako baldintza berberak betetzen badituzte, edo haien mendeko enpresak edo balio-kateko kideak badira.

Langileen langabezia-babesari dagokionez, ba al dago alderik 8/2020 LEDaren 22. artikuluan aurreikusitako ezinbesteko ABEEEaren, 8/2020 LEDaren 23. artikuluko ETAEen eta 30/2020 LEDaren 2. artikuluko aurreikusitako jarduera eteteagatiko edo mugatzeagatiko ABEEEen artean?

Ez. Langileen langabezia-babesa bera da, baldin eta Covid-19ak eragindako krisitik eratoritzen bada.

Ba al dago enpleguari eusteko konpromiso berririk?

Bai. Salbuespenak jasotzen dituzten enpresatzat enplegua babesteko beste sei hilabeteko aldi bat irekitzen da, ABEEEak eragindako langile bat lanean lehen aldiz hasten denetik edota (data hori ondorengoa izanez gero) aurreko enplegu-konpromisoa amaitzen denetik zenbatzen hasita, hala jasotzen baitu Irailaren 29ko 30/2020 Legegintzako Errege Dekretuak.